

noaua



SAMINA ERAGIN ZUEN TXIRRINDULARIAREN HERIOTZAK, ETA HASERREA BERE ISTRIPUAK


"Nahikoa da! Errespetatu txirrindulariak. Pakea beti bihotzean" lemapean jendetza batu zen larunbatean / 13 or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Osinaldeko dorre elektrikoan gertatutakoa ikerketapean da / 05



IBAI ARRIETA

'Janela' erakusketa ostegun honetan inauguratuko da / 08



NOAUA

Ehunka herritarrek Martxoaren 8ko deialdiekin bat egin zuten / 12



NOAUA

"HarEman egitasmoak integratzen laguntzen gaitu" / 18

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIURAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus



Albania

IRTEERA 2025eko maiatza



Noaok gidatutako
talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

ATEAK ZABALIK DITUZU USURBILEN JARDUERA BERRI BATI HASIERA EMATEKO!

DIRULAGUNTZAK

ALOKAIRURAKO
DIRULAGUNTZA
USURBILEN HUTSIK
DAUDEN LOKALETAN

ZURE PROIEKTUAREN
HASIERAKO GASTUEI
AURRE EGITEKO
DIRULAGUNTZA

ESKAERA AURKEZTEKO BI EPE:

1. epea: maiatzak 31 arte
2. epea: irailak 30 arte

Informazio gehiago

943 37 19 51 / 688 884 314 /
747 441 745

enplegu@usurbil.eus
ekintzailletza@beterriburuntza.eus

usurbil
zabalik **Z**

zabalik.usurbil.eus



Kalezarko ermitan kantari

Zumarteko Abesbatzak eta Kantuko Ikasleak izan dira Soinurbil musika zikloko lehen protagonistak. Martxoaren 5ean jaialdi ikusgarria eskaini zuten Kalezarko ermitan.

Jon Imanol Etxabe Telleriak zuzendu zuen kantaldia eta emakumezko musikagileen abestiak hautatu zituen, propio hautatu ere, erreperitorioa osatzeko garaian.

Zumarte Musika Eskolak 40. urtemuga ospatzeari ekin dio eta hilaren amaiera bitarte deialdi ugari iragarri dituzte.



Ezohiko toki batean, Kalezarko ermitan aritu ziren kantari Zumarteko abesbatzak eta musika eskolako kantuko ikasleak.

Garbigune mugikorra, Txokoalden

Martxoaren 13tik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Martxoaren 20an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera eramango dute.

Hurrengo ibilaldia, Usurbilgo erdigunean

“Goazen kalera, Usurbil!” dinamikako astearteroko hurrengo ibilaldia martxoaren 18an egingo da Usurbil erdigunean. Tarteka egin ohi duten moduan, Udalak ikastetxe eta jubilatutako elkarteekin lankidetzan ekintza berezia iragarri dute 10:30ean frontoian hasiko duten paseorako.

KzGuneako hurrengo ikastaroak

- Martxoak 12-13, 09:00-11:00 “Editatu bideoak zure smartphonearekin”.
 - Martxoak 14-18, 09:00-11:00 “LibreOffice Impress. Zure aurkezpenak sortu”.
- Informazio gehiagorako:
- Kale Nagusia, 37
 - 943 023 684
 - tutor.usurbil@kzgunea.net

Jokin Eizagirrearen erakusketa Guria tabernan

Jokin Eizagirrek jaietako maskota egiten du eta gabonetan, apaingarriekin edertzen ditu herri erdigunea eta auzoak. Margolaria ere bada eta bere hainbat koadro hautatu ditu eta Guria tabernan ipini ditu ikusgai. Erakusketa martxoaren 30era arte egongo da zabalik.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Aizak, hankak zabaldua ez, faborez

Martxoaren 8ko ospakizunen eta aldarrikapenen artean, kasualitatez edo ez, ekimen edo esamolde baten berri izan dut eta egun batzuetan buruan izan dut: *manspreading*. Euskaraz hankak zabaltzea esango genuke, gaztelaniaz despararre. Eta zer esan nahi du? Gizonak hankak zabaldua esertzea, batez ere garraio publikoan eta beste espazio publiko batzuetan, eta dagokiona baino leku gehiago hartzea. Espazio maskulinoa handitzeko eta femeninoa murrizteko joera erakusten du.

Txorakeria dirudi, baina... igual ez da hain txorakeria. Universitat Oberta de Catalunyako Begonya Enguix Grau katedratikoak horri buruz idazten du maskulinitate toxikoari buruzko liburu bateko kapitulu batean: *Men know, women listen: Mansplaining, manspreading and other malestream stories*, Gizonak badakite, emakumeek entzuten dute: *Mansplaining, manspreading* eta beste gizonkeria batzuk.

Manspreading hankak zabaltzea dela esan dugu. *Mansplaining* gizon batek



"2017an Madrilgo metroan hankak zabaltzearen jarreraren kontrako kanpaina jarri zuten martxan".

emakume bati dagoeneko ulertzen duen edo dakien zerbait azaltzea da, emakumearen ezagutza-falta justifikaziorik gabe onartuz.

Praktika horiek ez dutela axola pentsa dezakegula, beti existitu direla eta ohar-kabeen pasatu direla. Baina Enguixek axola dutela

"MANSREADING GIZONAK GARRAIO PUBLIKOAN ETA BESTE ESPAZIO PUBLIKO BATZUETAN HANKAK ZABALDUTA ESERTZEA DA"

azpimarratzen du, zerbaiti izena emateak identifikatzea eta arreta erakartzea esan nahi duelako eta horri buruz hausnartzeko aukera ematen digulako. Era berean, praktika hori existitzen dela baldin badakigu, aldatzeko aukerei buruz pentsatzen hasi gaitzkeela dio.

2017an Madrilgo metroan hankak zabaltzearen jarreraren kontrako kanpaina jarri zuten martxan, oso ohiko jarrera desatsegina zelako. Irudizko kartelak jarri zituzten; "ez erre" eta "zaborrik ez" kartelekin batera, "hankak ez zabaldu" adierazten zuten irudiak.

Niri, egia esan, egun haue-tan zer pentsatua eman dit gaiak eta trenean aurreko astean bertan hori gertatu zitzaidala konturatu naiz. Atearen ondoko aulkiak berez nahiko txikiak dira eta hankak zabaldua zegoen gizonak are eta espazio txikiagoa utzi zidan. Seguru nago zuetako batzuei ere pasako zitzaizuela, eta trenean ez bada izan, frontoiko tribunetan edo kiroldegiko harmailetan agian.

Gizonak hankak ixteko eta denok begirada zabaltzeko garaia iritsi da akaso.

Helduentzako tertulia filosofikoa

Martxoaren 21ean izango da, 18:30-20:00 artean Potxoenean. Bideratzaileak eginiko galdera batetik abiatuko da hausnartzea xede nagusi izango duen gune askeko dinamika, azken hiru urteotan egin izan duten moduan. 15 lagunentzako tokia egongo da Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteek antolaturiko hitzordu horretan. Izena doan eman ahalko da aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.

Pentsiodunen mugimenduak sinadurak biltzen jarraitzen du

"Pentsioak Osatzeko Euskal Sistema bat ezartzeko" Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua sustatzen ari den Herri Ekimen Legegilea (HEL) babesteko sinadurak biltzen segiko dute asteburuan. Aipatu mugimenduko herri ordezkariak batek mahaia jarriko du hilaren 15ean, goizeko 11:30etik 14:00ak bitartean, Sutegi atarian.



Larunbat honetan, aukera berri bat.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Larunbat arratsaldean gazte bat elektrokutatu zen dorre honetan eta osasun egoera larrian eraman zuten ospitalera.

Ertzaintzak ikerketa abiatu du, Osinalden gertatutakoa argitzeko

Ikerketa horren emaitza udalari jakinaraziko zaio, "neurririk hartu behar duen edo ez jakiteko". Dena den, une honetan udalarentzat "garrantzitsuena adingabearen osasun egoera da".

Ezbehar latza izan zen larunbat arratsaldean Osinalde industriagunean. Bi gaztetxo Oria ondoko Erribera kaleko ibilbidean kokaturiko goi-tentsioko dorrera igo ziren. Gazteotako bat elektrokutatu eta osasun egoera larrian eraman zuten Barakaldoko Gurutzetako ospitalera, halakoetan erreferentziazkoa den Erredura Handien Unitatera.

Gertaera honen harira, oharra kaleratu du astelehen honetan Usurbilgo Udalak. "Une honetan garrantzitsuena adingabearen osasun egoera da". Agurtzane Solaberrieta alkatearen esanetan, "tristuraz bizi dugu egoera: gisa honetako istripuek ezinegona eta atsekabea eragiten dute. Espero dugu haurrak hobera egitea,

eta senideei gure babesa adierazi nahi diet. Une honetan ezinbestekoa da argitzea zer gertatu den, ea dorreak segurtasun neurri guztiak betetzen ote dituen, eta berriz halako ezbehar larri bat eragozteko hartu beharreko neurriak ondo aztertzea, bakoitzari dagozkion ardurak hartuta".

Ertzaintzarekin, Iberdrolarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan da Udala

Gertaera lekuan izan ziren alkatea bera eta zinegotzietako bat larunbat arratsaldean.

Usurbilgo Udaletik ohar bidez jakinarazi dutenez, gertaera izandako lehen unetik bertatik etengabe hartuemanetan da Ertzaintzarekin baita gai honetan zeresana izan

dezaketen erakundeekin ere; hala nola, Iberdrolarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. "Zauritutako adingabearen egoera ezagutzea" da lehentasun Udalarentzat. Hala, alkateak astelehenan aditzera eman zuenez, jasotako informazioaren arabera, "egonkor jarraitzen du" larriki zauritutako haurrak.

Ikerketa martxan da

Ertzaintzak ikerketa abiatu du, "goi-tentsioko linea horrek segurtasun neurrien inguruko araudia betetzen duela ziurtatzeko". Solaberrietaren esanetan, "azken batean, ikertu beharra dagoena da zer dioen araudiak instalazio elektriko hauen inguruan, ea dorre horrek segurtasun neurriak behar

bezala aplikatuta dituen, zerbaitek huts egin badu, zer izan den" eta ondorioz, "zer neurri zuzentzaile hartu beharko liratekeen, berriro halakorik gerta dadin saihesteko bai Usurbilen eta edozein udalerritan". Ikerketaren helburu nagusia hain zuzen, "berriro, gisa honetako ezbeharrak saihestu ahal izatea" da, alkateak nabarmendu duenez.

Arduraz jokatzeko deia egin du udalak

Bere esanetan, "ez da una zehazteko norena den erantzukizuna, zerk huts egin duen jakiteko baizik". Horregatik, guztiok erantzukizunez eta arduraz jokatzeko deia egin du. "Ez da arinkeriaz jokatzeko una. Beraz, hedabideei ere lasaitasuna eskatzen diet, ikerketak bere denbora eskatzen duelako. Ikusiko dugu zer ondorio ateratzen diren".

Iberdrola: "Dorre elektrikoak jabetza pribatu batean dago"

Astelehenean, Iberdrolaren agiri baten berri eman zuen Noticias de Gipuzkoa egunkariak. Konpainia elektrikoaren esanetan, "goi-tentsioko dorre elektrikoak jabetza pribatu batean kokatzen da eta jabeari dagokio segurtasun neurrien mantenua". Era berean, ezbeharra nola gertatu zen argitu asmoz, ikerketaren zerbitzura dagoela azaldu du Iberdrolak.

"EZ DA ARINKERIAZ JOKATZEKO Unea. HEDABIDEEI ERE LASAITASUNA ESKATZEN DIET, IKERKETAK BERE DENBORA ESKATZEN DUELAKO"

AGURTZANE SOLABERRIETA, ALKATEA



1972ko Usurbilgo Trikitilari Egunak hauspotu zuen 50 urte bete dituen Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen sorrera.

Trikitixa Elkarteak Usurbilen ospatuko ditu urrezko ezteiak

LAXARO AZKUNE ETA MANEX TORREALDAI TRIKITI ZALEAK

Usurbilgo 1972ko Trikitilari Egunak sorrarazitako Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen 50. urtemugako ospakizun eguna antolatu dute martxoaren 22an, Zumarteren Soinurbilen baitan.

Nolatan izan zen Usurbil Trikitixa Elkartearen sorreraren abiapuntu?

Laxaro Azkune: 1972an Usurbilen eginiko Trikitilari Egunak halako inflexio puntua sortu zuen. Urte berezi samarra izan zen. Euskal Herri mailan kultur mugimendu edo bultzadak emateko gogoak sortu ziren urte horretan zehar; Usurbilgo Trikitilari Eguna, omenaldia, Iruñean, Tolosan edota Urola bailaran eginiko jardunaldiak... Hor pertsona garrantzitsu bat gure ustez, Joxanton Artze izan zen. Bera agertzen da Azpeitiko jardunaldietan, Usurbilgo antolaketa. Horren aurretik, 1970ean hasi zen trikitilari txapelketen antolaketa Artze, Xabier Le-

terekin batera. Hor ikusten da, trikiti mundua baseritarren erromerirako izatetik kulturako elementu gisa indar berezi bat eman ziotela, eta hori izan zen abiapuntua. Bestetik, Zeruko Argiako Mikel Atxagak hori bultzatzen lan handia egin zuen. Herriak 1972an emandako erantzuna harri-garria izan zen.

Are harrigarriagoa, garai eta testuinguru hartan.

L.A.: Kasu honetan, bikote bat omendu zen; Sakabi eta Egañazpi. Bikote hau omentzeak berak adierazten du, hor bazegoela mugimenduari halako keinu bat egin nahia, mugimendu horren figurak baitziren garai hartan. Euskal

Herriak frankismotik burua ateratzeko zuen gogo hori izan zuen jendeak emandako erantzunak. Hor ikusi zen, bazegoela halako gogo bat, komunitate bat eta horri indarra eman behar zitzaioela.

52 urte igaro dira ordutik. Zeintzuk dira elkartearen urteotako ibil-

"1972KO USURBILGO TRIKITILARI EGUNAK INFLEXIO PUNTUA SORTU ZUEN"

bidea definitu duten mugarri nagusiak?

L.A.: 50. urtemugak eragin zuen "Euskal Herriko Trikitixa Elkarte, 50 urte eta gehiago" liburua idaztea, bere historia jaso nahi zelako. Hor bilketa lana egitea kosta zaigu pixka bat, trikiti egunak ez zeuden oso ondo dokumentatuak. Behintzat 1972an hasi eta urtero 1993ra arte, trikitilarien egun batzuk antolatzen joan ziren. Elkarteak gorabehera batzuk izan zituen legezkatze garaioak eta ondoren. Hasieratik herri batzorde bat izan zen hori martxan jarri zuena eta guk dakigula Artze anaiak, Joxelu Aranburu eta Aizpurua... horiek izan ziren mugimendu honi hasiera eman ziotenak. Usurbilgo batzorde horrek asko lagundu zion hurrengo urteko Azpeitiko Trikitilari Egunari. Hortik aurrera, trikitilari eta panderojoleen artean joan ziren batzordeak sortzen. Hor pertsona gako bat Esteban Larrañaga da. Loiolako antolaketa eta hurrengo trikiti egun guztietan katebegi izan zen eta elkartearen lehenbiziko lehendakaria ere bai.

Era berean, transmisio kate baten emaitza izan da.

L.A.: Bai, noski. 1972an, orduko Zeruko Argian egindako elkarrizketan bai Sakabi eta Egañazpi esaten dute jada erromeriak moteltzen hasiak daudela. Jendea jada dantzalekuetara joaten dela. Gizartean bertan, aldaketa bat ari zen gertatzen eta beldur horrek eraginda, mugimendu honi indar edo hauspoa emateko egunak ziren trikiti egun horiek. 1994an batzordeak sortzen dira, elkarte bera egituratzen hasten da. 2000 urte inguruan liberatuekin hasten da, hor beste kultur proiektu bat sortu eta ekintza piloa egiten ditu elkarteak. Hain modu prekarioan hasitako mugimendu batetik, 50 urte hauetan egun duen nolabaiteko egiturara iritsi gara eta ez da gutxi.

Hau guztia hilaren 22n aurkeztuko duzuen liburuan islatu duzue. Manex Torrealdai: Laxaro Azkunek eta Haritz Garmendiak orain arte trikitixaren inguruan bildu gabe zegoen informazio asko jaso, egituratu eta hori dena liburu batean azaleratu da. Garrantzia handikoa da elkartearentzat eta mundu honentzat, nondik gatozen ezagutzeko.

Usurbilen garrantzia ere ezezaguna izan daiteke eta hein batean. M.T.: Neroni izan nintzen lehenengoa, liburu irakurtzen hastean esan nuela Usurbilen ez diogula aitortzarik egin hau dena sortzen aritutakoei. Ohorea da horretaz jabetzea. Usurbilen historikoki Tapiatarrak irakasten aritu dira, Eleuteriotik hasita gero Juan Tapia Zumarten egoteraino. Usurbilen trikitilari piloa daude, hor da Triku taldea.

L.A.: Usurbilek erakutsi du herri mugitua izan dela, garai hartan ere bai. Badirudi, gero Euskal Herrira zabaldutako trikiti egunen mugimendua berriz ere atzera Gipuzkoara etorri dela.

Ze presentzia du egun trikitiak plaza edota musika eskoletan? M.T.: Trikitixarentzat une ona da. Gipuzkoan du indar gehien. Bizkaian ere ikusten dut erromeri mundu hau berriz piztu dela, talde asko atera dira. Trikitixa Elkarteak iaz antolatutako Trikitixa Eguna Iruñean izan zen. Elkarte gisa, guretzat oso garrantzitsua izan zen 600 trikitilari biltzea.

Nola egokitu da trikitia testuiguru berrietara? M.T.: Trikitixak jakin du egokitzen garaian garaikora oi-



1972ko Usurbilgo Trikitilari Eguneko irudia, martxoaren 22ko ekitaldiko antolatzaileek helarazitakoa.

naria galdu gabe. Elektronikarekin batera elkarbizi den garai honetan, igandero Aristerrazun erromerian bi trikitilari hiru orduz plazan aritzea itzela da. Are gehiago, urteotan gaztetu dela ikustea. Usurbilgo gazte ugari joaten dira orain hara.

L.A.: Garai hartako soinu txikiarekiko konplexu dezente zegoen. Txistularien aldetik musikari kaxkartzat hartzen zituzten, trikitilariak ere nahiko bazterreko sentitzen ziren. Soinu handia zen hiriguneko erromerietan prestigioa zuen. Soinu txikiak bazirudien ia desagertu egin behar zuela. Bitxia da 1972tik aurrera eta 80. hamarkadakan izan zuen susperraldiaren ondoren, soinu handia dela plazetatik desagertu dena eta soinu txikiak hartu dituen alor horietan guztietan egokitzen jakin izan du. Herri honi aitortu behar zaio hori eta etorkizuna hortik dator. Bakoitzak bilatu dezala bere bidea baina lehengoa

ere ahaztu gabe, Aristerrazu ahaztu gabe. Polita litzateke Euskal Herrian Aristerrazukoa bezalako beste hiru bat leku gotea.

Aurrera begira, zer erronka ditu elkarteak?

L.A.: Bada gogoeta garai bat, musikako irakaskuntza profesionalen barruan trikitiaren espezialitatea sartzeko Madrildik etorritako dekretuaren inguruan.

M.T.: Oraintxe dekretu horren interpretazio garaia da, bazkideekin bildu eta aztertzea zer dakarren dekretu horrek. Elkarte gisa ondo etorriko zai-

"TRIKITIXAK JAKIN DU EGOKITZEN GARAIAN GARAİKORA, OINARRIA GALDU GABE"

gu korrante bat markatzeko eta esateko zein litzatekeen bide egokia bazkideentzat.

L.A.: Liburu honek erakutsi du baita dokumentazio zentro potente baten premia duela elkarteak. Emanda daude lehen urratsak.

Topaketa modukoa izan nahi du, martxoaren 22ko hitzorduak?

L.A.: 1972ko Trikitilarien Eguna hura antolatzeko ideia izan zutenei, nolabaiteko aitortza egin eta eskerrak eman nahi dizkiegulehen urrats hori eman zutenei, usurbildarrei adieraztearekin batera, egun horretan herri honek izandako protagonismo berezia, liburu aurkeztu eta eskuragarri jartzeaz gain. Guztia, 12:00etan Sutegin.

M.T.: Gero, 13:00ean herrira aterako gara trikipoteoan eta 14:00etan bazkaltzera joango gara Artzabalera (txartelak martxoaren 14ra arte eskuragarri trikitixaelkartea@gmail.com helbidean).

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

"Zumarteren proposamenak ilusio handia egin zidan"

IBAI ARRIETA ARGAZKILARIA

Gorka Urbizu musikariaren bakarko lehen grabaketa prozesua argazkilari usurbildarraren iruditari ikusgai izango duzue Sutegin hilaren 30era arte, Zumarteren Soinurbil zikloaren baitan.

"Janela" erakusleiho baterako gonbita da?

Ibai Arrieta: "Janela" kantak berak aukera ederra eskaintzen du Gorka Urbizuk musikari gisa hartu duen bide berri honetan gertatu dena ulertzeko. Gorka zetorren Berri Txarrak uztetik. Bazen jakinmina zer gertatuko zen eta berak nolabait presio horretatik aldendu nahi izan zuen, bere lehen bakarkako diskoa grabatzeko. Prozesu hau ulertzeko "Kaier bat" liburua argitaratu zuen Gorka Urbizuk eta hor lagun-garriak dira argazkiak. "Janela" erakusketa egiteko aukera sortu zenean, ikusten nuen materialak erakusketa batean funtziona zezakeela. Gorkari proposatu nion, berak ondo ikusten zuen. Komisariotza lanak egin dituen Garbiñe Ortégaren bidez forma ematen hasi ginen. Ekainean Donostiako Dock of the Bay jaialdiaren baitan aurkeztu zen erakusketa argazki eta bideoekin. Berebizikoa da gauza hauek forma har dezaten, babes hori egotea. Proposamena etorri zen gero Zumarteren partetik eta erabaki zen argazkietara mugatzea.

Berri Txarrak-en azken bira iruditari biltzeko aukera izan zenuen. Nola gerturatu zara lan intimoa-go honetara?

Berri Txarrak-en urte amaiera hori izan zen halako emozioen leherketa bat kontzertu bakoitzean. Argazkilari bezala



Ibai Arrieta, "Janela" erakusketa irudietako bat eskuartean duela.

hori erretratatzeko oso erakar-garria izan zen. Orain, bidea alderantzizkoa zen. Sekretupean egin zen Gorkaren lehen bakarkako diskoaren grabazioa Lleidako Guissona herriko familia baten etxebizitzako estudioan. Gorkari jartzen zioten baldintza zen eramatea kantak bukatu gabe. Bertan zer gerta zitekeen, prozesu horren jarraipena egin nahi zuen. Grabaketa prozesuko lehen bost egunetan egon nintzen. Egoera horretan, argazkilari gisa izan nitzakeen hainbat ideia baina mugatua zaude, ze erretratatu behar

duzu ahalik eta interakzio sultilenarekin. Une horietan kantakixteko erabakiak hartzen ari ziren eta horren lekuko izatea egokitu zitzaidan. Prozesu honetan lantzen zutena zen giro bat sortzea, musika-

"ZUMARTEK BERROGEI URTEOTAN ZERBAIT EGIN BADU IZAN DA MUSIKAREKIKO ILUSIOA PIZTEA"

ria sorkuntza munduarekin lotzeko, kantak bukaeraraino eramane ahal izateko. Horretarako ahal dela argazkilari ikusezin bat izan behar nintzen. Era berean, elkarbizitzaren parte sentiarazten gintuzten.

Nola jaso zenuen Zumarteren gonbita?

Zumartetik proposamena heldu zenean, ilusio handia egin zidan. Oinarizko musika ikasketak bertan eginak ditut. Zumartek herri mailan duen funtzioa oso interesgarria iruditzen zait eta geronek bizi izan dugu. Ez du musika formakuntza eskaintzen soilik, umeei musikarako sarbide bat eskaini, musika zaletasunera gerturatzen die. Zumartek 40 urteotan zerbaitekin egin badu izan da musikarekiko ilusioa piztea eta hori aitortu behar zaio.

Sutegiko erakusketa musikarekiko duzun zaletasunaren emaitza ere bada?

Musikazale amorratua naiz. Badakit zaletasun hau Zumarten ez baginen egon, seguraski ez nuen biziko. Gero irudia eta musika uztartu nituen musika zale nintzelako. Hemen egondako gaztetxeetako kontzertuetan hasi nintzen argazkiak egiten. Egun, ogibide argazkilaritza badut ere, ez dut soilik musikagintzan lan egiten, baina alor horrek asko motibatzen nau.

Zer nolako begiradarekin nahi zenuke gerturatzea erakusketara?

Gorka ezagutu edo bere bidea jarraitzen duenak seguru bere bakarko lehen diskoaren atzean egon daitekeen zertzeladaren bat jasoko du. Ezagutzen ez duenak ikusiko du sortzaile batek proiektu batean aurrera egiteko hartutako arriskuen aurrean, nola mugitu daitekeen. Alde batetik ikusiko du grabaketa prozesua eta, bestalde, kontzertuetarako sortutako formazioaren lehen pausoak.



Zumarteko talde instrumentalek kontzertua eskainiko dute martxoaren 20an, Aginagako Eliza Zaharrean.

Hilabetez luzatuko da Soinurbil zikloa

40 urte bete dituen Zumarte Musika Eskolaren zikloa abiatu dute bertako abeslariak. Inoizko luzeena izango da urtemuga berezi honetako zikloa. Izan ere, martxoaren 30era arte hamaika hitzordu antolatu dituzte.

Hasi da orain arteko edizioetan luzeena eta egingo den uneagatik berezietakoa izango den zikloa; 21. Soinurbil abiarazi zuten martxoaren 5ean, ezohiko kokagune batetik. Izan ere, Kalezarko ermita hautatu dute aurreko urteetan musika astea izan eta oraingoan, martxoaren 30era arte luzatuko den hilabeteko zikloari ekiteko.

Inoizko edizio luzeenaren abiapuntu izandako horretan, aurten, 40 urte beteko dituen Zumarte Musika Eskolako ahots ederrek hartu zuten parte; Zumarteko abesbatzak (Zumarte Txiki Abesbatzak, ZumarTeen Abesbatzak eta Zumarte Gazte Abesbatzak) eta kantatu modernoko ikasleek. Jon Imanol Etxabe Telleriak zuzendu zuen saioak emakume sortzailei gorazarre egin

nahi izan zien, Martxoaren 8aren bezperatan hain zuzen.

Asteazken honetan, Salbatore elizako organoa ezagutzeko bi bisita gidatu antolatuak zituzten Soinurbilen baitan, Joan Luis Atxegarekin; datozen asteotan, martxoaren 30era bitarte, kontzertu gehiago, solasaldia eta ekitaldi bereziak. Segidan duzue Zumartekoek osaturiko egitaraua osorik:

21. Soinurbil

Martxoak 13-30

"Janela: leiho bat Gorka Urbizuren unibertsoa begira" Ibai Arrieta del Picoren argazki erakusketa Sutegiko erakustaretoan.

Ordutegia:

- Ostegun eta ostiraletan: 17:30-20:00.

- Larunbat eta igandeetan: 11:30-14:00 / 17:30-20:00.

Hitzorduak:

- Martxoak 13: 18:30 Irekiera.
- Martxoak 15 (12:00), 21 (18:30), 28 (18:30): bisita gidatuak. Gonbidapenak usurbil-kultura.eus plataforman aurrez eskuragarri. 15 pertsonentzako lekua.
- Zehaztasunak: "Argazki erakusketa honetan Gorka Urbizu musikariak 2024an kalera-tu zuen. "Hasiara bat" lanaren, grabaketa prozesuan eta lehen

**"ZUMARTE MUSIKA
ESKOLAKO AHOTS
EDERREK HARTU
ZUTEN PARTE
KALEZARKO
KANTALDIAN"**

kontzertuetako une berezi eta intimoetan egindako argazkiak aurkezten ditu Ibai Arrieta del Pico argazkilaria usurbildarrak. Erakusketa honetan "leiho" txiki bat zabaltzeko proposamena egiten da, kantuaren muinerako bidaian aurkitzen den musikariaren barne mundura gerturatzeko gonbidapena".

Laguntzaileak: Only In Drems / Koldo Mitxelena Kulturunea / Gipuzkoako Foru Aldundia.

Martxoak 16, igandea

- 19:00 Suhar abesbatza Salbatore elizan.

Martxoak 19, asteazkena

- 18:30 Hondarribiko Musika Eskolarekin trukea Sutegiko auditorioan.

Martxoak 20, osteguna

- 18:30 Zumarteko talde instrumentalen kontzertua Aginagako Eliza Zaharra Elkar-gunean.

Martxoak 22, larunbata

- 12:00 Euskal Herriko Trikitilari Elkartearen 50. urteurren sorrerako ekitaldia Sutegiko auditorioan.

Martxoak 23, igandea

- Trintxerpeko Musika Banda Usurbilen:
- 12:00 Klean kalejira.
- 13:00 Kontzertua frontoian.

Martxoak 27, osteguna

- 18:30 Zumarteko ikasleen kontzertua Hondarribiko Kultur Etxeko aretoan, hangoekin egindako trukearen baitan.

Martxoak 30, igandea

- 18:00 Musika Sorkuntzaz berriketan Sutegin.
- Hizlariak: Olatz Salvador eta Jokin Pinatxo.
- Moderatzailea: Gari Udabe.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udalak.

Laguntzaileak: Salbatore Parrokia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Trenbidea berritu eta gero, libre geratuko den zatia bidegorri bilakatzea eskatu du Kalapiiek

Orio eta Usurbil arteko trenbide-saihesbide berriarekin, 2,7 kilometro inguruko tartea libratuko da.

Eusko Trenbide Sarea (ETS) datozen hilabeteetan hasiko da Orio eta Usurbil artean trenbide-saihesbide bat eraikitze-ko lanekin, Aginaga parean. Ekimen honen bidez, tunel bat egiteko asmoa dago, trenaren ibilbidea laburragoa izan dadin. Honek 2,7 kilometro inguruko tartea libre utziko du.

Kalapie Donostiako txirindularien elkartetik "uste dugu erabiltzen ez den trenbide zatia lehenbailehen egokitu beharko litzatekeela bizikleta eta oinezkoen erabilerarako".

Gaur egun, Txokoalderainoko bidea herritarrek erabiltzen dute jada, paseatzeko edota kirola egiteko. "Azpiegitura hau Txokoalderetik harago zabaltzeak onura handia ekarriko luke herritarrentzat, ibilbide eroso eta natura- eta paisaia-balio handikoa eskaintzen

baitu". Ondorioz, Kalapietik eskaera helarazi die "bai probintziako bidegorrien sarea kudeatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiko jasangarritasun departamentuari, bai Eusko Jaurlaritzako mugikortasun iraunkorreko departamentuari. Kalapiiek eskaera bera egin zuen proiektuaren alegazioen fasean 2022an, baina konpromiso falta aurrean, berriro egin nahi izan dugu eskaera".

Kalapien ustez, "ETSko Txokoaldeko zubia berregokitzea bere gain hartzen duen bezala, liberatutako tartea hori egokitzea ere ETSren ardura izan beharko litzateke". Jarduera hau jada jasota dago Foru Aldundiaren Bizikleta Bideen Plan Sektorialean, "beraz, funtsezkoa da administrazioen arteko koordinazioa, betetzen dela bermatzeko".



Libre geratuko den tartea ahalik eta azkarren egokitzea eskatu du Kalapiiek.

"Harrituta gaude Aldundiaren erantzunarekin"

Eskaera erregistratu ondoren, Foru Aldundiaren erantzuna jaso du Kalapiiek, esanez bizikletaren plan estrategikoak

Usurbil-Aginaga bidegorria 2032tik aurrera eraikitzeko asmoa duela. "Harrituta gaude erantzunarekin, eta uste dugu ez dela onargarria hainbeste itzarotea azpitarte hau egokitzeko. Ulertzen dugu tartea osoari ezin izatea epe laburrean heldu, jarduketa konplexua baita. Baina ez dugu ulertzen bidearen azpitarte hau ahalik eta eperik laburrean ez egokitzea. Beraz, espero dugu inplikaturako erakundeek esandakoak kontutan hartzea".

USURBIL-AGINAGA BIDEGORRIA 2032TIK AURRERA ERAIKIKO DUELA ERANTZUN DU FORU ALDUNDIAK



"Mota guztietako hondakinak ikusten dira: botilak, plastikoak, obra-hondakinak..."

Zumarteko ibaiertza, egoera kaskarrean

Salaketa hau egin izan da aurretik. "Tren-zubia eta Ucin lan-tegiaren artean, errioiari begira jarri diren bankuetatik dagoen ikuspegia ez da batere atsegina, hondakinez beteta baitago ibaiertza eta oinezkoen bidea artekoa", dio argazkia bidali digun herritarrek. "Mota guztietako hondakinak ikusten dira: botilak, plastikoak, latak, obra-hondakinak, eta abar".

Udarregi ikastola: "Zigilu berriak aurrera jarraitzeko indarra emango digu"

Udarregi ikastolak STEM Proficient zigilua eskuratu berri du. "Lehendik Competent zigilua bagenuen, baina mailaz igotzea lortu dugu", ikastetxetik aditzera eman diguten. "STEM School Label-a errekonozimendu zigilu bat da, European Schoolnet sareak bultzatutako Scientix plataformaren baitan garatzen dena. Ikastetxeen zientzia-teknologia ikas arloetako gaitasun-zigilu honek, STEM gaietan (zientzia, teknologia, ingeniari-ritza eta matematikak) Europako ikastetxeen lan pedago-



Udarregi 'STEM Proficient' izeneko zigilua eskuratu berri du.

gikoa diagnostikatzen laguntzeaz gain, aitortza eta bikaintasuna bultzatzen ditu". Aitortza honek "gure proiektuekin aurrera jarraitzeko indarra emango digu".

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 18, ASTEARTEA - POTXOENEAN

1. deialdia **17.30** / 2. deialdia **18.00**

GAI-ZERREDA:

- 1) 2024ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2025eko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

noaUA



Usurbilgo Udala



KABIENE

Usurbilgo elkarlan gunea



BETERRI
BURUNTZA

HASIZ HAZI diru laguntza
ekintzaile eta autonomoentzat:

URTEBETEKO EGONALDIA
KABIENEN, DOAN

Eskaerak aurkezteko bi epe:

1.epea: Maiatzak 31 arte

2.epea: Irailak 30 arte

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: Usurbilgo Udala 943 37 19 51 enplegu@usurbil.eus

Kabiene elkarlan gunea 943 55 96 75 kabiene@kabiene.com

Beterri-Buruntza autoenplegu zerbitzua 688 884 314 eta 747 441 745 ekintzaitza@beterriburuntza.eus



Gosari feminista antolatuta zuten goiz partean.



Elkarretaratzean antifaxismo feminista aldarrikatu zuten.

Emakumeak kalera atera ziren Martxoaren 8an

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izan zen larunbatean, Martxoak 8, eta Usurbilgo Mugimendu feministak egitarau oparoa prestatu zuen: gosaria, elkarretaratzea, pintxopotea eta DJ emanaldia, hurrenez hurren.

Gosari feministarekin hasi zuten Martxoak 8, frontoian. Kafea eta bizkotxoa hartu zuten antolatzaileek eta bertaratu ziren lagunek. Ordubetez egon ziren bertan gosaria eman eta eguna antolatzen. Ondoren, 11:24ko trenean Donostiarako bidea hartu zuten feministek Donostiako manifestaziora joateko.

Arratsaldean egitarauarekin jarraitu zuten Usurbilgo Mugimendu Feminista osatzen duten Kafe Tertulia eta Usur-

bilgo Emakumeon Etxeko lagunek. Elkarretaratze jendetsua deitu zuten Mikel Laboa plazan. eta herritarrek uste bezain ondo erantzun zioten deialdiari. Ehunka lagun bildu ziren Zumetaren muralaren aurrean, eta feministen hitzak txalotu zituzten "antifaxismoa feminista izango da edo ez da izango" lelopean.

Faxismoaren aurkako aldarria Gizarte krisialdian gaudela aldarrikatu zuten feministek

elkarretaratzean: emakumeen aurkako indarkeria, migrazio politika bortitzak... "faxismoaren oldarraldiaren lekuko gara", hala azpimarratu zuten elkarretaratzea hasi bezain pronto. Kapitalismo kolonial patriarkala indarrez islatu nahi duela esan zuten, eta erreakzio faxista hori patriarkala ere badela salatu zuten: "modu bereiztuan eragiten digu neska, bollera eta trans gazteei". Zapalkuntza horien adibidetzat hartu zituzten sare sozialetako erreakzio misoginoak, eta esan zuten emakumeen borroka kriminalizatzeko saia-kerak etengabeak direla. "Borroka antifaxista feminismo autonomotik ere aurrera eramatea ezinbestekoa da", jakinarazi zuten feministek. Euskal Herri feministaren erai-kuntzaren forma berezitua jartzen duela ere esan zuten eta Euskal Herriko emakume feministak antolatuta daudela. "Faxismoari aurre egiteko

modu zuzenetako bat feminista izatea bera da. Antifaxismoa feminista izango da edo ez da izango" esanez amaitu zuten 2025eko Martxoak 8ko elkarretaratzea.

DJ ikastaroaren fruituak

Martxoaren 5 eta 6ko DJ ikastaroan parte hartutakoek ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten iluntzean. KRII Kolektiboko kideekin batera, musika feminista jarri eta pintxopote eder batez gozatzeko aukera izan zuten Artzabalera hurbildutako dozenaka emakumek.

"FAXISMOARI AURRE EGITEKO MODU ZUZENETARIKO BAT FEMINISTA IZATEA BERA DA"



Arratsaldeko elkarretaratzea oso jendetsua izan zen.



Pintxopotearekin eta herritarren Dj emanaldi bereziarekin amaitu zuten eguna.

N634 errepidea hartu dute, azken istripua salatzeko

Aurreko aste hasieran, Bizkarreko zubi ondoan hildako txirrindulariaren istripua salatu zuten larunbat eguerdian, N634 errepidean barrena egindako mobilizazioan. "Nahikoa da!" aldarrikatu eta txirrindulariekiko errespetua eskatu zuten.

Ibilgailuen joan-etorria etenik gabekoa izaten da egunero N634 errepidean, baita txirrindulariarena ere, bereziki asteburuetan. Aurreko larunbatean, ordea, eten egin zuten trafikoa. Bizikleta gainean ibiltzen direnek eta oinezkoek hartu zuten osorik N634 errepidea. Moztu egin zuten Usurbil alderik alde zeharkatzen duen bide nagusia, ondoko irudiotan ikus dezakezuen moduan, ezohiko mobilizazio baterako. "Nahikoa da!", aski dela aldarrikatu zuten hitzorduan bildutako ehunka lagunek.

Martxoaren 3an, kamioi batek txirrindulari bat harrapatu zuen Bizkarreko zubi ondoan. Larrialdi zerbitzuak bertaratutako ziren arren, ez zuten ezer egiterik izan. Istripu lekuan bertan zenduzen. Hildakoa, berrieman genizuen moduan, Tolosaldeako Lanbide Heziketako zuzendari Iñaki Pakea Arsuaga 53 urteko Ibarako bizilagun ezaguna izan zen.

"Errespetatu txirrindulariak"
Samina eragin zuen txirrindulariaren heriotzak eta haserre bere istripuak. Bera



Mnuta bateko isilunea egin zuten istripua gertatu zen bihurgunean.

omendu eta errepideetan jatzotako txirrindularien enegarren istripuaren ondoren, aski dela salatzen zuten ezbeharrak gertatutako lekuan bertan ehunka lagun.

Larunbatean, eguerdiko 11:45erako jarria zuten hitzordua Atxega jauregi atarian. Handik abiatu zuten "Nahikoa da! Errespetatu txirrindulariak. Pakea beti bihotzean" aldarria zeraman mobilizazioa. N634 errepideak batu zituen inguru hori eta Bizkarreko zubi ondoko aste hasierako ezbeharraren lekua.


Irudietan ikus dezakezuen moduan, ehunka lagun batziren; hildakoaren senide eta lagunekin batera, herriko nahiz beste hainbat txokoetako txirrindulari mordoa, udal ordezkariak...

**HILDAKO
TXIRRINDULARIAREN
ALDEKO
MOBILIZAZIOA
TXALO ARTEAN
AMAITU ZEN**



Aurreko larunbatean jende asko batu zen Atxega jauregian. Eta handik oinez joan ziren txirrindulariak bizia galdu zueneko punturaino.

ABUR
BIRA



Euskarazko film laburren
XXII. zirkuituaren
EMANALDIA+Solasaldia

*Alaia Martin PENTSATZEN DUT filmaren
zuzendariarekin*

Martxoak 23 · IGANDEA · 18:00
Sutegi Auditorioa (USURBIL)



USURBILGO HAUR ESKOLA
2025/26 MATRIKULAZIOA

0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2023, 2024 eta 2025eko azaroa bitarte
jaiotako hurrei zuzenduta

ATE IREKIAK: martxoaren 25ean 17:30ean.

Izena emateko bete ondoko galdetegia:



MATRIKULA-EPEA: martxoaren 31tik apirilaren 11ra (biak barne)

HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA: 8:00-16:00.

EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera. Iraila-uztaila.

Matrikulaziorako hitzordua: 943 374061 telefonoan 8:30etik
12:00etara eta haureskola@udarregi.eus

Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL // Informazio gehiago: haureskola@udarregi.eus edo 943 374061



Ainara Azpiazu 'Axi' komikigilea proiektu berrietan ari da lanean. Hilaren amaieran liburutegian izango da gaztetxoekin.

"Komikiaren bereizgarria testua eta irudiaren erabilera da"

AINARA AZPIAZU 'AXPI' KOMIKIGILEA

Ainara Azpiazu 'Axi'-k gidatutako komiki tailerra eskainiko dute liburutegian martxoaren 28an, arratsaldeko 17:30ean hasita. Izen-ematea irekita dago.

Komiki tailerra eskainiko duzu. Zer nolako jarduerak aurreikus-ten dituzu?

Ordu eta erdiko tailerra izango da. Laburra izango da, eta horrek ez du askorako denborarik ematen. Saio bakarria izatea eskatu zidaten, eta beraz, oinarri batzuk azalduko ditut. 3-4 binetako tira bat osatzea izango da helburua. Zati batean pertsonaia eta diseinatu eta gidoia osatuko dugu, eta hurrengo zatian tira horri forma emango diogu.

8-9 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago, DBH barne.

Adin talde bakoitzarentzat egokitutako tailerra izango da, eta saiatuko naiz edukiak ego-

kitzen. Ordu eta erdian ematen du denbora hori egin ahal izateko.

Marraskia eta narrazioa landuko dituzue?

Komikiaren bereizgarria testua eta irudiaren erabilera da, maila narratibo batean betiere. Testuaren zatia ere landu behar da, eta hori ikaslearen gaitasunen arabera izan ohi da. Gidoia egin behar da, erritmo bat eman, pertsonaiak pentsatu, zer esango duten, zein tonutan... Komikiaren bereizgarri horrek egiten du komikia horren eder: testua lantzen da batetik eta bestetik, irudia; elkarren osagarri. Bada dago hizkuntzaren eta narra-

zioaren grafikoaren lanketa, eta hori zoragarria da. Irudiaren baitan ere mila gauza lantzeko aukera dago: planoak, sekuentziarioa, estilo grafikoa, kolorea... oso medio aberatsa da.

Nolakoa izaten da sorkuntza prozesua?

"PERTSONAIA DISEINATU ETA GIDOIA OSATUKO DUGU, ETA GERO TIRA HORRI FORMA EMANGO DIOGU"

Sormena oso gauza pertsonala da, eta artista bakoitzak abestiakosomodu ezberdinean sortzen dituzten bezala, gure kasuan ere bakoitzak bere prozesua du. Batzuetan estrategia batzuk erabili behar ditugu, eta besteetan besteak, ikasle bakoitzak duen sortzeko moduaren arabera. Nik normalean bide bat ematen dut: ideiatik eta testutik abiatzea. Badaude beste mila teknika. Bakoitzak bere prozedurak ditu eta horiek errespetatu eta aurkitu behar dira.

Nola hasi zinen komikigintzan?

Betidanik izan naiz marrazkizalea. Marrazki bizidunak ikusten nituen txikitan, eta etxean komiki klasiko batzuk banituen: Tintin, Asterix eta Obelix... Umetatik izan dut, ordea, halako sentsazio bat komikiarekiko: non daude neskak istorio hauetan? Hori baneukan buruan. Ez nintzen identifikatzen pertsonaiekin. Gerora erabaki nuenean grafismotik jotzea, eta irudia erabiltzea istorioa kontatzeko, komikiarekin topo egin nuen. Bide polit bat iruditu zitzaidan istorioak beste ikuspuntu batetik kontatzeko, eta emakumeak sartzeko. 20 bat urterekin hasi nintzen Hernaniko Kronikan tirak egiten, eta Berrian ere bai. 23-24 urterekin deskubritu nituen nobela grafikoak, eguneroko istorioak ere islatzen dituzten komikiak, eleberrikutsu gehiago dutenak. Asko gustatzen zait haur txiki-entzatek ere komikiak egitea. Pixkanakako bidea izan da; espresio grafikoa lantzeko. Emakumezkoen komikigintza indartsu dabil azkenaldian, eta hori pozgarria da.

Egun zer lan egiten dituzu?

Proiektu batekin nabil lanean, haurrentzat. Ez dakit noiz ikusiko duen argia, baina horretan nabil. Kolaborazio txikiak ere egiten ditut, eta lanean nabil buru-belarri. Tailerrak ere ematen ditut zaletasun hau partekatzeko.



Eneko Toledo usurbildarra Freestyle saio batera joan aurretik kalean harrapatu dugu.

"Freestyle dantzak neure barnea sentitzeko aukera ematen dit"

ENEKO TOLEDO FREESTYLE DANTZARIA

Dantzan pasioa aurkitu du Eneko Toledo usurbildarrak azken urteetan. Freestyle-an aritzen da, eta dantza urbanoan erabat murgilduta dabil. Musika jarri eta horrek sortzen dizunaren arabera mugitzeko aukera ematen du freestyle-ak.

Freestyle egiten duzu.

Bai, eta ez dakit oso ondo nola definituko nukeen ere. Niretzat estimuan ditudan pertsonekin partekatze momentua da, eta horretaz gain, pertsonalki neure burua ezagutu, garatu eta maitatzeko baliabidea da. Musika jarri eta horrek sortzen dizunaren arabera mugitzeko aukera ematen du freestyle-ak, ez duzu pentsatu behar hurrengo pausoak zein diren. Askapena eskaintzen du.

Estiloa librea izanik, nola dakizu ondo edo gaizki ari zaren? Edo nola baloratzen duzu egiten ari zarena?

Sentsazioen arabera da. Musika batzuekin gehiago

konektatzen da, eta beste batzuekin gutxiago. Musikarekin ahalik eta gehien konektatzen duzunean, zeure burua askeago nabari duzu, eta alderantzizkoa ere gertatzen da. Kalitatea teknikaren arabera da. Ondo edo gaizki dantzatzea subjektiboa da erabat, eta hori txapelketetan ere ikusten da epaileen erabakiei erreparatuta. Epaile batentzat oso ona dena, beste batentzat ez da horren ona. Epaitzerako garaian dantzariaren musikaltasuna hartzen da kontuan, teknika eta irudimena.

Teknika batzuk oso ikusiak daude, eta horien artean irudimentsuenak edo berritzaile-

leenak bilatzen ditu epaimahaiak puntuak ematean.

Teknikaz ari zarenean, zertaz ari zara?

Teknikak oso anitzak izan daitezke. Dantza estiloa daukagu alde batetik, eta horretan mila aukera daude: *waving*, *animation*, *hip-hop*... Estilo urbanoak

"PASIOA AURKITU DUT FREESTYLE-AN ETA NIRE EGUNEROKOAREN PARTE EGIN DUT"

dira asko, baina ez denak. *Heels* dantza mota ez da urbanotzat hartzen, baina eragin zuzena du dantza urbanoan. Denak du eragina. Estilo bakoitzak bere teknika propioak ditu: *bibrazioa*, altuerarekin jolastea, atzeraka egitea... Estiloen esentziak dira nolabait, eta horiek teknikatzat hartzen dira.

Noiztik praktikatzen duzu freestyle?

Pare bat urte izango dira freestyle egiten dudanetik. Dantzaren lehen pausua bigarren hezkuntzan ematen hasi nintzen *Jam Style*-ean, kide batzuei esker. Musika elektronikoa oso gustukoa izan dut betidanik eta oso konektatuta sentiarazten nau. Dantzarako bidea ireki zidan *Jam Style* aurkitzeak eta horretatik *Shuffle*-era pasatu nintzen. Duela pare bat urte arte *Shuffle* egiten nuen. Parrandan egiten nuen. Ez nuen entrenatu beharreko zerbait modura ulertzen, baizik eta ondo pasatzeko bidetzat hartzen nuen. Parranda zen erakutsi eta partekatze momentua. Duela hiru bat urte akademia batean hasteko pausua eman nuen. Youtuben ikusten nuena egiten nuen parrandan ordura arte. Donostiako dantza eskola batean hasi nintzen, beraz, *Slow Dance* izena duen eskola batean. Dantza estilo asko ezagutzeko aukera eman zidan horrek, eta bertan ezagutu nuen neure gaur egungo altxorrik preziatuenetako bat: Maialen Mendes. Neska hau freestyle-an ibiltzen da, eta esperientzia zabala du. Dantzarekiko ikuspegia erabat aldatu zidan. Gaur egun, Unity dantza proiektuan dabil lanean, eta dantzarioi partekatze aukera bikaina eskaintzen digu. Oso aberasgarria izan da bera ezagutu eta taldean aritzea. Pasioa aurkitu dut freestyle-an eta nire egunerokotasunaren parte egin da erabat. Ustekabekoa izan da gutik behera.



Freestyle txapelketak izaten dira? Hartu duzu parte inoiz?

Santanderren egindako txapelketa batean izan ginen duela hilabete batzuk eta maiztzean Parisera joateko bidaia prestatzen ari gara. Astebeteko animation estiloko txapelketa bat dago eta bertan hartu nahi dugu parte. Freestylearen barruan gehien gustatzen zaidan estiloa da animation, eta ilusioz nago. Tailerrak egingo ditugu astebetez, eta asteburuan txapelketa izango da. Gerora, ziur jarraituko dugula beste txapelketa batzuetan parte hartzen.

Dantza mota hori sekula ikusi ez duenarentzat, zer da 'animation'?

Animation zinematik datorren korrante bat da. 50eko hamarkadan *stop motion* zinemaren erabiltzen hasi ziren, eta hori oso iraultzailea izan zen zinemagintzan. Fotogramaz fotograma benetakoak ez diren gauzak erakusten hasi ziren. *Stop motion* fotograma bidezko zinema egiteko modu hori dantzara ekarri zuten, eta imitazio horren ondorioa da *animation*. *Stop motion*-eko teknikak dantzara ekarri zituzten eta pertsonaia ez bizidunak irudikatzea da asmoa, adibidez, robota. Mugimendu oso lehorrak eta dardarak egiten hasi ziren, eta horretatik abiatuta, teknika anitzak sortu ziren. Gaur egun indarra hartzen ari den estiloa da. Musika ordenagailuz egindakoa da, eta ñabardura ugari izaten ditu.

Txapelketetan banaka hartzen da parte?

Formatu askotakoak daude; banakakoak, binakakoak, hirunakakoak zein taldekakoak. Banakakoaren barnean ere, formatu asko daude. *Seven to smoke* erabiltzen da askotan. Zortzi partaideren artean egiten da, zortzi onenen artean. Ordena jartzen da eta bat bestearen atzean kokatzen dira. Lehen bien artean norgehia-



"Hileko azken ostiralean egiten ditugu entrenamendu irekiak. Erreterian elkartzen gara 18:00-20:00 artean".

goka izaten da, eta galtzen duena atzera joaten da. Hala, lehenengo dagoenaren aurkako borrokatxoak izaten dira. Batek zazpiak segidan irabaztean amaitzen da edo denbora-epe jakin batean gehien irabazten dituenak irabazten du. Halako formatu asko daude. Ni orain arte *All Styles* txapelketetan aritu naiz, bai Santanderren, bai Dabadaban. Lehena torneo modukoa izan zen, eta Dabadabakoa *seven to smoke* formatuan. Askok ikasi dut txapelketetan eta oso gustura hartzen dut parte.

Zer ematen dizu dantzak?

Askatasuna. Neure barnea sentitzeko aukera ematen dit. Neuretzako unea da.

Nolatan aurkitu duzu dantza horren berandu? Umea zinela ez zenuen zure estiloa aurkitzen?

"TXIKITAN EZ DUT DANTZAREKIN HARREMAN HANDIRIK, IZAN ESKOLAN IZANDAKOAZ GAIN"

Ez dakit oso ondo zergatik. Txikitan ez dut dantzarekin harreman handirik izan. Ikastolan inauterietarako dantzak prestatzen genituenean, ez zen oso gustuko jarduera edo loakentzen zidan ezer. Ez nuen pasiorik sentitzen, nahiz eta gustura aritzen nintzen. *Shuffle* dantzatzan nuenean ere, gustura aritzen nintzen, baina ez nuen pasio berezirik. Orain, azken urte hauetan horrenbesteko lotura aurkitu dut *animation* estiloarekin, oso neure sentitzen dut eta nire pertsonaren parte bilakatu da. Zerbait espirituala kasik.

Freestyle modan dago gure inguruan?


Nahiko minoritarioa da Espainian, eta are gehiago, hemen, Gipuzkoan. Komunitateen garrantzia ikaragarria da, eta bertan jendea ezagutzeko aukera bikaina da. Hain mu-

"ZEROTIK HASI NAHI DUENAK LEHENENGO ZEIN ESTILO GUSTATZEN ZAION BILATU BEHAR DU"

gimendu minoritarioa izanik, eskertzekoa da espazioak aurkitzea. 10-12 bat lagun elkartzen gara normalean Unity proiektuan. Hileko azken ostiralean egiten ditugu entrenamendu irekiak, eta jendeak dantza egiteko aukera hori nahi balu, Erreterian elkartzen gara 18:00-20:00 artean, Dantzagunean. Dantza estilo bat jartzen dugu eta denok batera momentu hori partekatze-ko aukera izaten dugu. Ez dugu epaitzen eta inoiz dantzarik egin ez duen edonorentzat ere aukera bikaina da. Unity proiektuan hiru lagun dabilta lanean, eta *workshop*-ak antolatzen dituzte, bai eta txapelketa txikiak ere.

Zein izaten da zure estiloa gustukoena?

Animation estiloan ibiltzen naiz bereziki gustura eta azken aldirian, *waving* dezente egiten ari naiz. Bakoitzak bere estiloa du. Zeretik hasi nahi duen norbaitek lehenengo zein estilo gustatzen zaion bilatu behar du, musika egokiena, eta horren barruan zer dantza dezakeen. Musicmap.info webgunean estiloei buruzko informazio pila bat dago eta nondik hasi jakiten lagundu dezake.



HarEman egitasmoa sustatzaileak, udaletxe sarreran jarritako panel berriaren ondoan.

"Integratzen laguntzen gaitu HarEman-ek"

Usurbilgo bizilagunak herrira bizitzera etorritakoekin hartuemanetan, elkar ezagutzen jartzen dituen HarEman egitasmoa berraktibatzea erabaki du Usurbilgo Udalak. Zenbait aldaketa iragarri ditu, xede nagusiari eutsita; Usurbila datozenen "integrazio komunitarioa" sustatzea.

Izan ere, dinamizatzaile berria izango du; Loira Manzaniren lekukoa hartuko du herrikide Julen Bengoetxeak. Agerraldi bidez, berak zehaztu zituen beste bi berrikuntzak; bate-tik, hemendik aurrera, "modu iraunkor batean eskainiko dugu". Horrekin batera, barkarkakoaz gain, "taldekako mentoretza eskainiko dugu" baita. Honenbestez, "talde bat ere izan ahalko da, Usurbila etorritako pertsona baten mentore"; koadrilak, herri eragileak... Berrikuntza hauekin, orain arte bezalaxe, "bikote berriak osatzen segi nahi dugu". Ezaugarri edota zale-tasunen arabera bikote harremanak eraikitzen laguntzen jarraituko dute. Parte hartzaileek astean behin biltzeko konpromisoa hartu beharko dute. "Harremana

eraikitzeko prozesu horretan, Zabalduz-en partetik ematen zaie laguntza profesional bat, sei hilabete inguruko iraupena izango du", harremana finkatu arte. "Parte hartzera animatzen zaituztegu, oso esperientzia aberasgarriak sortzen dira", animatu zuen Bengoetxeak aurreko asteko agerraldian. Izena bideotatik eman ahalko duzue: 722 446 156 / hareman@zabalduz.eus / usurbil.eus/hareman

"TALDE BAT ERE IZAN AHALKO DA, USURBILA ETORRITAKO PERTSONA BATEN MENTORE"

Sostengua

HarEman-en bidez ezagutu ziren Lina Rincon eta Prexen Egileta. "Oso esperientzia polita da", nabarmendu zuen Linak. Izan ere, gogorarazi zuenez, sorterrira utzi eta herrialde batera bizi-proiektu berri bati ekitera doanak kultur talka handia bizi du. Horregatik, zioen, "proiektu honek gure herrian integratzen laguntzen gaitu". Prexenen laguntza handia jaso zuela

"PARTE HARTZERA ANIMATZEN ZAITUZTEGU. OSO ESPERIENTZIA ABERASGARRIAK SORTZEN DIRA"

nabarmendu zuen. "Beti oso adi egoten da gurekin". Oso gogoan du, nola senarrak Gasteizera lanera joan behar izan zuen eta bera Usurbilen haurrekin bakarrik zegoen. Tar-te horretan eta gerora, "sostengu oso garrantzitsua izan zen Prexen". Ildo beretik mintzatu zen baita Egileta. Gogoan du, herria ezagutzeko hasi ziren harremanak. Linarekin herrian ikusteak jakinmina piztu du hainbat herrikiderengan eta horrek aukera eman dio Prexeni ahoz-ahokoaren bidez, egitasmoaren berri eman eta Lina ere herriko jendartean gehiago murgiltzeko. "Proiektu hau oso positiboa da haien-tzat eta guretzat. Bere ohiturak, bizimodua ezagutzeko" aukera eman diola azpimarratu zuen.

Udalbatza aretoa hautatu zuten agerraldia egiteko, udaletxe sarrerako ondoko argazkiko panelagatik hain zuzen. Horren bidez, Usurbila bizitzera datozenentzat lehen harrera gunea izaki, lagungarriak izango zaizkien baliabide eta proiektuen (HarEman, harrera zerbitzua, baliabideen gida, euskazko hiztegitxo) berri jaso ahalko dute euskarri horren bidez. Guztia, harrera herri bilakatzeko, "harrera on eta egokia" emateko alkate Agurtzane Solaberrietak berri eman zuenez. Geroz eta identitate aniztasun handiagoa dago Usurbilen eta horren kudeaketa egokia egitea "bada erronka handi bat gure herri-arentzat". Horretan ari direla zioen, "kudeatzeko eredu demokratiko propio, integral, parte hartzaile, inklusibo eta arrazakeriaren aurkakoa osatu nahian". Hor, komunitateak zeregina ere baduela gogorarazi zuen, HarEman egitasmoarekin esaterako. "Oso balorazio positiboa egiten dugu. Iaz 10 bikote osatu ziren, prozesu osoa zortzi bikote-ekin zuten. Balorazio horrek ekarri du berraktibatzea programa hau, gainera, modu iraunkorrean".



Mintzalagun egitasmoan parte hartzen hasi den herrikide talde berria.

Mintzalagun egitasmoa, kide berrientzat zabalik

Euskara ahotan gehiagotan eta gehiagorekin hartzeko mintzalagun izateko deia egin dute egitasmoko sustatzaileek.

Euskara ahotan hartzeko go-goak batu ditu argazkiko mahaiaren bueltan dauden herrikideak. Mintzalagun egitasmoaz ari gara, martxan baita berriz. Aurrerantzean, Euskaltzaleen Topagunetik sustaturiko egitasmoa esleitzeko Usurbilgo Udalak eginitako deialdian nagusitu ostean, Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarrekin kudeatuko du, bertako langile eta herrikide Imanol Furundarenak. Berri eman digunez, hiru talde dabilta dinamika honetan euskarari eragiten; batetik, alde aurretik, Etumeta AEK euskaltegiak

kudeatzen zuen garaian sortu eta azkenaldian, haien kabuz bildu izan diren bi talde eta ondoko irudiko hirugarren taldea, urte hasieran eginitako izen-emate kanpainaren harira osaturikoa.

Izena emateko aukera

Furundarenak NOAUA!ri adierazi dionez, parte hartzeko izena emateko aukera bada oraindik eta horretara deitu du. Helbide honetan duzuen galdetegia osatuta eman ahalko duzue izena: <https://forms.gle/PtDQmmvkZrJw97Sv5>. "Taldea berri bat sortu den hei-

nean, atea irekiak ditugu jende berriak nahi badu izena eman, ikusi delako programa hau arrakastatsua dela", usurbildarraren esanetan. Gogoan izan, taldeka, "euskaraz ondo moldatzen den pertsona bat, hizkuntza maila hobetu nahi duten lagun talde batekin elkartzen da eta hainbat gaien inguruan mintzatzen dira partekatzen duten denbora tarte horretan". Normalean, astean behin biltzen dira taldeok "kideen zaletasunak, adina, bizitokia eta ordutegiak kontuan hartuz sortzen dira". Furundarenak gaineratu bezala, "helburua gune eroso

"PARTAIDEAK EROSO ETA GUSTURA DAUDE. OSO BALIOTSUA ZAIE ESPAZIO HORI"

zein atsegina sortzea da, inongo lotsa eta beldurrik gabe hitz egiteko". Sustatzaileen esanetan, parte hartzaileek "lortzen dituzten onurak, euskaraz hitz egiteaz haratago, onura praktikoak, sozialak, emozionalak... dira". Izan ere, "hitz egiteaz gain, gustuko dituzten ekintzak egiten dituzte elkarrekin, hala nola lagun giroan paseatu, kirola egin, kafe bat hartu edo besterik gabe elkarren konpainia eta solasaldiaz disfrutat!".

Euskararen mintzalagun diren hiru taldeek, nor bere bidean segiko du astero elkartzen, baina tarteka, topaketak ere antolatu asmo dituzte. "Hiru taldeak independente ki biltzen segiko dute, baina bizpahiru hilabetez behin geratuko gara elkarrekin eta topaketa batzuk egingo ditugu elkarren artean ezagutzeko, kezkek, ahulgune eta indarguneak partekatu eta elkarrekin ahalduntzeko", Mintzalagun programaren dinamizatzaileraren esanetan.

"Oso eroso eta gustura"

Albiste honi atxikitako argazkia, aipatu moduan, osatu den hirugarren taldearena da, lehen aldiz otsailean elkar ezagutzeko Potxoenean bildu zirenekoa. Gainerako bi taldeekin hartuemanetan jarrita, "bidelagunek komentatu didate oso eroso eta gustura daudela eta oso baliotsua zaiela espazio hori". Usurbil herri euskalduna izanik, bidelarien aldetik jaso izan dutenez, "programa hau haien hizkuntza indartzeko baliatu nahi dute, besteekin komunikatu ahal izateko, harremanak indartzeko eta oztopo ez izateko haien egunerokoan, jendea ezagutzekoan".

Antxeta
 TABERNA
 egunero irekitzen dugu!
 · eguneko menua · asteburuko menua
 · oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
 · paellak enkarguz!
 943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

JUANTXO
 BURDINDEGIA
 Zubiaurrenea 8, USURBIL
 943 37 00 08

Antxi
 bazkariak EGUNERO
 · afariak ostirala eta larunbata
 © 943 362725 · © 688 690 361

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
 www.noaua.eus

"Harira batuz, bidea eraiki" aldarripean dator Gazte Eguna

Martxoaren 29rako iragarri du Aztarrika gazte taldeak egunpasa egiteko deialdia.

Kontzertu gaua, ginkana, kalejira, afaria... Topagune izaera argia duen Gazte Eguna antolatu du aurtengorako ere Aztarrika Gazte Asanbladak.

"Badator aurtengo ere hainbeste esperotako Gazte Eguna", iragarri dute sare sozialen bidez. Zehaztu duten moduan, "egun osoko egitaraua izango dugu martxoaren 29an". Parte hartzeko deia egin dute. "Animatu eta goazen denon artean harira batuz bidea eraikitzen". Izan ere, horixe da 2025eko ediziorako hautatu duten aldarria; "harira batuz, bidea eraiki".

Usurbilgo Gazte Eguna

Martxoak 29, larunbata

- 11:30 Ginkana Askatasuna plazan.
- Ondoren, hamaiketako Askatasuna plazan.
- 17:30 Poteo girotua Peña Alegriarekin Aitzagatik hasita.
- 20:30 Gazte-afaria Askatasuna plazan.
- 00:00 Kontzertu gaua: Ameba, Zilibito Records, Dj La Fulana.

Antolatzailea: Aztarrika Gazte Asanblada.



Laburbirako eskaintza berria martxoaren 23an ikus ahal izango dugu.

Euskarazko film laburren uzta berriena

Bueltan dator euskarazko ikus-entzunezko lan laburren proiektzioa Sutegira.

Zortzi film hauek proiektatuko dira: Prosopagnosia (Ekain Martínez de Lizarduy), Plazer bat (Sonia Estevez), Betiko gaua (Eneko Sagardoy), Euro-

pa (Ekain Irigoien), Pentsatzen dut (Alaia Martin, Karmele Mitxelena, Iraitz Mateo), Hor konpon (Jone Arriola), Good-bay Kepler (Nerea Ayala) eta Utlandsk (Alba Lozano). Martxoaren 23an, 18:00etan Potxoenean.

Martxoaren 19an, Euskaraldiaren inguruko bilera

Maiatzaren 15etik 25era hizkuntza ohituretan eragingo duen ekimenaren laugarren edizioa prestatzen segitzeko bilera deitu du Euskaraldia dinamizatzen ari den herri batzordeak, datorren asteartean, martxoaren 19an, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Herrien eta entitateen izen-ematea zabalik da euskaraldia.eus atarian. Ahobiziei eta Belarriprestei aldiz, larunbat honetan irekiko zaie parte hartzeko aukera.

Arrobitxuloko kudeaketa eredua finkatzeko bilera

Otsailaren 22an aurkeztu zuten Elkargunearen izena, marka edota proiektuaren beste hainbat zertzelada. 2020tik hona bideratzen joandako egitasmo honen hurrengo erronketako bat kudeaketa-eredua definitzea izango da. Lan-keta horri begirako bilera deitu dute hilaren 22an 10:30ean Txirikordan.

Arrobitxulo nerabe, gazte eta kultur zaleen elkarlanerako aterpea izango da eta Udarrregi ikastolaren pareko belazean eraikiko da.

Errigoraren kanpaina martxan

Martxoaren 26an amaituko da eskaerak egiteko epea.

- Eskaintza: ardo bereziak eta gorenak, dilistak, arroza, zainzuriak, orburuak, barazkiak, babarrunak, zainzuriak, piperrak, kardua, tomateak, potxak, menestra, arbendolak, pasta, oliba-olioa.
- Eskaerak egiteko modua: errigora.eus atarian edo NOAUA!ren egoitzan.
- Produktuen banaketa: maiatzak 6-7 inguruan.

Informazio gehiago, errigora.eus webgunean edo NOAUA!n.

Sorospen ikastarorako izen-ematea

Bihurri ludotekak antolatutako 'Lehen sorospenak haurtzarorako' ikastarorako izena emateko aukera izango da, martxoaren 16ra arte. Interes duenak bihuririludoteka@gmail.com helbidera idatzi beharko du. Gehienez ere 30 pertsonentzako tokia egongo da. Bi saio izango dira; hilaren 22an, alde teorikoa landuko dute; besteak beste, larrialdi egoerei aurre egiteko jokabideak eta hilaren 29an alderdi praktikoa. Bi saioak 10:00-12:00 artean egingo dira.

 943 361 182
EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL

 **Kima**
MASAJE LEKUA
 · KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

 **Inaki Iturgintza**
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com
600 024 825

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil 618773004

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldari bila gabilta. Orduetgia astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. 747446091 Michele

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketara lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

BESTELAKOAK

55 kilo inguruko aharia salgai Mahaspildegina. 943 364 461 (12:00-15:00 artean deitu).

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

HILDAKOAK



Marcial Goenaga Gorriti
Martxoaren 4an hil zen, 99 urterekin.

ZORION-AGURRAK



Zorionak!

Martxoaren 9an gure sorgintxoak 3 urte bete ditu! Zorionak eta muxu erraldoi bat etxekoan partez.

ZORION AGURRAK



Zorionak lera!

17 urte egin dituzu. Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Muxu eta besarkada handi bat, familia osoaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Pilota Usurbilen

Martxoak 14, ostirala:

• 17:45 Usurbilgo frontoian, Infantilak eskuz binaka 2. Mailan (errendimendua):

- Pagazpe 1

- Ziotza

Eskubaloia Oiardon

Martxoak 15, larunbata:

• 12:00 Kadete mutilak:
-Usurbil KE A
-Gran Camping Zarautz ZKE

• 15:45 Jubenil mutilak:
-Usurbil KE
-Saieko Oxkarbi taberna

Martxoak 16, igandea:

• 11:00 Kadete mutilak:
-Usurbil KE B
-Leizaran Horia

Futbola Haranen

Martxoak 15, larunbata:

• 09:00 Infantil mutilak:
Usurbil FT C-Ekintza DKE
• 10:30 Infantil neskek:
Usurbil FT-Antiguoko KE
• 12:00 Kadete mutilak:
Usurbil FT-Pasaia KE

Haranetik kanpo

Martxoak 15, larunbata:

• 09:00 Infantil neskek, Andoain:
Euskalduna-Usurbil FT
• 09:00 Kadete neskek, Berion:
Antigua Luberrri KE-Usurbil FT

• 09:00 Infantil mutilak, Zumaian:
Zumaiaiko FT-Usurbil FT
• 19:15 Erregionalak, Donostiako
Puion: Vasconia B-Usurbil FT B

Martxoak 16, igandea:

• 10:00 Infantil mutilak, Idiazabal:
Idiazabal KE-Usurbil FT B
• 11:30 Jubenilak, Oiartzunen:
Oiartzun KE C-Usurbil FT B
• 17:00 Infantil txiki, Orion:
Orioko FT-Usurbil FT
• 17:30 Ohorezko jubenilak, Azpeitian:
Lagun Onak CD-Usurbil FT
• 17:50 Preferenteak, Martutenen:
Amara Berri KE-Usurbil FT

Boleibola Oiardon

Martxoak 15, larunbata:

• 18:00 Jubenil neskek:
Usurbil-Arizmendi 1

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 13

USURBIL Soinurbil: "Janela" argazki erakusketaren irekiera

"Janela: leiho bat Gorka Urbizuren unibertsora begira" argazki erakusketaren irekiera.
18:30 Sutegiko erakustaretoan.

LARUNBATA 15

USURBIL Pentsiodunen Mugimenduaren sinadura bilketa

Herri Ekimen Legegilea (HEL) babesteko sinadura bilketa.
11:30 Sutegi atarian.

USURBIL Soinurbil: "Janela" erakusketa, bisita gidatua

Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
Bisita orduak: 11:30-14:00 / 17:30-20:00.
Sutegiko erakusketa aretoan.

IGANDEA 16

USURBIL 21. Soinurbil: Suhar abesbatza

Euskal Herri osoko ia 40 abeslariz osaturiko taldea da Suhar Korua.
19:00 Salbatore elizan.

USURBIL Soinurbil: "Janela" erakusketa

Bisita orduak: 11:30-14:00 / 17:30-20:00.



Martxoaren 30era arte egongo da argazki erakusketa Sutegin ikusgai.

'Janela' argazki erakusketaren irekiera

'Janela. Leiho bat Gorka Urbizuren unibertsora' Sutegiko erakusketa gelara iritsiko da ostegun honetan.

Garbiñe Ortega komisarioak Gorka Urbizu musikariaren, Ibai Arrieta del Pico argazkilaria eta Alexander Cabeza Trigg zinemagilearen talentua bildu zuen Donostian eginiko erakusketa batean, *Hasiera* bat diskoaren grabaketa prozesua islatzeko.

Usurbilgo erakusketa hone-tan ordea, soilik Ibai Arrietaren argazkiak ikus ahal izango ditugu.

Bisita-orduak:

- Ostegun eta ostiraletan: 17:30-20:00.
- Larunbat eta igandeetan: 11:30-14:00 / 17:30-20:00.
- Martxoaren 13tik 30era egongo da Sutegiko erakusketa zabalik.

Suhar koruaren saioa, igande honetan Salbatore elizan

Euskal Herri osoko 40 abeslariz osaturiko taldea da Suhar Korua. Sorreratik, Euskal Herriko eta atzerriko jaialdi nagusietan aritu izan dira. 2023an, Tolosako 54. Abesbatza Lehiaketako 5 sariak bereganatu zituzten. Igande honetan, Salbatore elizan arituko dira, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Liburutegiko deialdiak

Martxoak 18, asteartea

- 18:30-20:00 "Subcampeón" liburuaren inguruko aurkezpen-solasaldia.

Martxoak 28, ostirala

- 17:30-19:00 Komiki tailerra "Axi" -ren eskutik. LH4tik gorako haur eta gaztetxoentzat (DBH barne). Izen-ematea: aurrez, Sutegi udal liburutegian bertan.

NOAUA!-ko bazkideen batzarra Potxoenean

- Lehen deialdia: 17:30.
- Bigarren deialdia: 18:00.

Gai-zerrenda:

- 2024ko memoria eta balantze ekonomikoa.
 - 2025eko egitasmoak eta aurrekontuak.
 - Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
 - Galderak eta erantzunak.
- Deitzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK



8:00-20:30 Astelehenerdik - Asteazkenara
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL Tel 943 73 20 27



ARTZABAL

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK





943 36 91 39

Infomaitemindu ➔

Bidali 

ALTA 747 444 777

zenbakira eta jaso
Gipuzkoa eta
Foru Aldundiari
buruzko informazio
garrantzitsuena.



 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia



Usurbilgo Sagardo Kultura

Izen-ematea
650usurbilbizi.eus

Usurbilgo sagardoaren kultura ezagutzeko bisita gidatua herriko sagastietan barrena. *

650 Usurbil Turismoa
USURBIL *bizi*

Martxoak 23 - 10:00etan
Irteera: Sagardoaren eskultura (Noaua-ren alboan)

*5 kilometroko ibilbidea da, eta ez da irisgarria



BESTE MODURA



Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan



DENONIA DA ONURA

Martxoak 10-26
errigora.eus

